Errezilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik
"Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua 1.3" eta
Gazteria sailetik "Haur eta nerabeen sustapenerako arreta zerbitzua"
garatzeko helburua duen zerbitzu kontratua arautuko duten baldintza tekniko berezien orriak

1.Testuingurua- Zerbitzuak legedian kokatzea

- Gizarte zerbitzuen legea eta Zerbitzu eta prestazioen zorroa
  - 12/2008 Legearen garapenean, zerbitzuak orokortu eta homogeneizatzeko helburuari jarraituz, zerbitzuen katalogo bat azaldu da EAEko lurralde osorako, nahitaez bete beharrekoa.Dekretua 185/2015 urriak 6koa Kartera horretan, Gizarte eta Hezkuntzaren Arloan eta Arlo Psikosozialean esku hartzeko Zerbitzua izenez, finkatuta dago udalek gizarte-zerbitzuetan dituzten eskumenak erabilita babesgabetasun arin edo neurrizkoko egoeran dauden haur eta nerabeei eta beren familiei emango zaien funtsezko erantzuna.

- Haurtzaro eta nerabezaroaren babeserako legea
  - Haur eta Nerabeak Babesteko Legean (02/2024), udal-eremukoa den lehen mailako arretaren eta lurralde-eremukoa den bigarren mailako arretaren artean eskumenen banaketa ezartzearekin batera, haur eta nerabe guztiek duten babestuak izateko eta gizarteratuta egoteko eskubideari nahiz antolaketa eta funtzionamendua jasotzaile horiei egokitu beharra duen arreta-sare publikoan sartzeko aukerari heldu zaie.

- Lehen mailako Gizarte Zerbitzuen eskumenak
  - Indarrean dagoen araudiari jarraituz eta araudiaren logikak errespetatuz, Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuek, dituzten eskumenak erabiliz, haur eta nerabeen babesgabetasun arin eta neurrizkoko egoerei erantzuna eman behar diete, eta, hala, egoera

horiek hobetzera bideratutako zerbitzuak abian jarri behar dituzte, hala nola hemen deskribatutako Gizarte eta Hezkuntzaren Arloan eta Arlo Psikosozialean esku hartzeko Zerbitzua (1.3.).

<table>
<tr><td colspan="3">1-Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialeaneskuhartzekozerbitzua (1.3)
Zerbitzuaren fitxa</td></tr>
<tr><td>Definizioa eta helburua</td><td colspan="2">Zerbitzu hau gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean babesteko harreman-prestazio indibidual, familiako edo taldeko batzuetan datza. Prestazio horiek familiaren bizilekuan (etxeko hezkuntza, familiaren gaineko oinarrizko esku-hartzea) zein ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte- eta kultura-arloko bitartekaritza) gara daitezke. Zerbitzu honen helburuak dira erabiltzaileek: a) autonomiaz moldatzea, gizarteratzea eta familia- eta komunitate-inguruneko bizikidetza egokia bultzatuko duten gaitasun pertsonalak, familiakoak edo taldekoak (jarrerak, gaitasunak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) eskuratzea eta garatzea; b) ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak beste egoki batzuekin ordezkatzea.</td></tr>
<tr><td rowspan="5">Prestazioak</td><td rowspan="5">Gizarte-zerbitzuenak</td><td>Informazioa.</td></tr>
<tr><td>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea.</td></tr>
<tr><td>Jarraipen-balioespena.</td></tr>
<tr><td>Lagun egite soziala.</td></tr>
<tr><td>Bitartekaritza – Bitartekotza.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Hartzaileak</td><td>Egoera</td><td>a) Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak. b) Mendetasun-arriskuan dauden pertsonak. c) Babesgabetasun-arriskuko egoera arinean edo neurrizkoan dauden adingabeak; babesgabetasun-arriskuko egoera larrian dauden adingabeak edo helduak zerbitzu honetatik kanpo geratuko dira, pertsona horiek artatzea Familiekin Gizarte- eta Hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean Esku hartzeko Zerbitzuari dagokiolako (2.7.3.1).</td></tr>
<tr><td>Adina</td><td>Adin-mugarik gabe.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Lortzeko baldintzak</td><td>Administraziokoak</td><td>Ezin izango dira eskatu Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3. artikuluan aipatzen diren titulartasun-baldintza orokorrak esku-hartzea adingabeei eragiten dieten babes-gabetasun-arriskuko egoera arinak edo neurrizkoak artatzera bideratzen bada.</td></tr>
<tr><td>Premiazkoak</td><td>Hezkuntza-arloko babesa eta/edo laguntza psikosoziala behar izatea honako helburu hauetako batekin: a) familia-bizikidetza hobetzea; b) familiako kideen arreta eta zaintzarako trebetasunak hobetzea; c) eta/edo autonomiaz moldatzeko aukera erraztea edo ahalbidetzea.</td></tr>
</table>

2. Gaztematika Sarea

Errezilgo haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatzeko zerbitzua, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udalek osatzen duten "Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren", Gaztematikaren, baitan kokatzen da.

Gaztematikaren xedea eta Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzuaren[1](aurrerantzean PSZ) xedea berbera da: Tokian-tokiko haur, nerabe eta gazteei eskaintza iraunkorra eskainiaz, haien haurtzaro eta gaztetasunaz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzea, etapa horiek dituzten bi zentzuetan:

- Berezko balioa eta esanahia duten bizi-etapa gisa; hau da, etapa hauetan norbere bizitzako protagonista da, hiritartasun-eskubideei lotuta dago eta ehundura sozialaren behar beharrezko zatia da.

- Gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak landuz, ikasiz eta indartuz, pixkanaka emantzipazio prozesu bat izateko, hau da, heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duten etapa gisa. Izan ere, heldutasunean lortzen da erabakiak hartzeko eta erabaki horiek bizi-proiektu pertsonal batean gauzatzeko autonomia maila handiena.

Sistemak, esku hartze zuzena, eta beste sistema edo heziketa eremu batzuekin lankidetzan aritzearen bidez lortzen du hartzaileengan eragitea. Sistemaren antolaketa eta funtzionamenduaren funtsa dira ondorengo printzipio, balio eta irizpideak:

- Haur eta nerabeen sustapen politikaren izaera sektorial eta berariazkoa zein integral eta zeharkakoa.
- Zehar-lerroak: Berdintasuna, aniztasunkulturala eta euskararen sustapena.
- Erantzukizun publikoa eta gizarte partaidetza
- Koordinazioa eta sare lana.
- Proaktibotasuna, gertutasuna, pertsonalizazioa, jarraikortasuna eta prebentzioa.
- Ezagutzan oinarritutako kalitatezko eskuhartzea.

Sustapen zerbitzu horien eskaintza haur eta nerabeen beharren detekzio jarraituan oinarritzen da, eta premia horiei erantzuna eman nahian egiten den eskaintza honako jarduera-eremuetan[2]antolatu ohi da:

1. Informazioa
2. Orientazioa
3. Bide-laguntza
4. Aisia hezitzailea
5. Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak
6. Sorkuntzarako eta produkziorako bideak

3.Errezilgo Haur, Nerabe eta Gazteen parte hartzea sustatzeko zerbitzua

Sustapen Zerbitzua Xedea: Zerbitzuko xede nagusia da Errezilgo haur nerabe eta gazteen beharrei erantzutea bai nortasun pertsonala garatzearekin zerikusia dutenak bai baita garapen soziala garatzearekin zerikusia dutenak ere. Honako hauek hartzen dira besteak beste behartzat:

- Babesa, errespetua eta beren giza duintasunaren aintzat espenaizatea.
- Ondo pasatzea eta bizitzaz gozatzea.
- Beren familiako, taldeko eta komunitateko ingurunearekin dituzten harremanen bitartez, maitasuna eta estimazioa jasotzea.
- Pertsona gisa beren burua ezagutzea eta beren ingurunea ulertzea.
- Haur, nerabe eta gazteen osasuna babestea eta sustatzea.
- Bizitzarako trebezi, gaitasun eta jarrera baliagarriak lortu eta garatzea.
- Autonomia eta erantzukizuna ezarttzea: erabakiak hartzea, nork bere gain arrazoizko arriskuak hartzea, aukeratzea, erantzukizuna hartzea.
- Pertsonen arteko lotura egonkorrak eta atsegin emaileak eraikitzea.
- Elkarrekin bizitzen ikastea: adiskidetasuna, harreman sareak, partaidetza taldeak.
- Adieraztea, parte hartzea eta sortzea.
- Komunikazioaren eta etengabeko ikaskuntzaren gizartean ikastea.
- Beren bizitzako protagonista sentitzea.

2. Zerbitzuen funtsa

- <u>Udalerriaren beharren analisia</u>
  - Testuinguruan kokatzeko orduan, eta zerbitzu berria abian jartzeari begira, beharrezkoa da udalerri bakoitzean haur, nerabe eta familiek zein komunitateak egun dituzten beharrak aztertzea, errealitatea haztatu nahiz aipatutako beharrak zehaztasun handiagoz betetze aldera, mantendu eta gehitu behar diren formatu eta modalitate teknikoen bitartez.

3. Zerbitzuen Hartzaileak

Arrisku egoeran edo babesgabetasun arriskuan dauden haurrak, nerabeak eta hauen familiak

- Arrisku egoeran edo bazterkeria arriskuan dauden helduak
- Haur eta nerabeak orokorrean.

4. Garatu beharreko zerbitzuak (programak):

Programa desberdinen inplementazioa era progresiboan izatea aurreikusten da, herriko beharren azterketa burutuz hasiera batean, erantzunak beharretara erabat egokitzeko eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

Hortaz, hemen jasotzen diren programa guztien garapen osoa, pixkanaka eta era progresiboan martxan jarriko dira.

- <u>Herriko beharren azterketa</u>
  - Oro har lurraldeko eta komunitatearen nahiz pertsonen errealitatea zehatz ezagutzeko -gure kasuan haur eta nerabeena eta beren familiena batez ere-, beharrezkoa da, edozein esku-hartze gauzatzeko orduan, horiek bi hilabetean aztertzea. Hala bada, zerbitzuak martxan jartzeko, beharrezkoa izango da udalerriko haur eta nerabeen eta beren familien beharrak aztertzea, erantzuna doitzeko, plangintza-prozesuan hobetzeko elementuak gehituta. Beharren azterketa hori oinarrituta egongo da alderdi hauen azterketan eta balorazioan:
    - ✓ Lurraldearen behaketa sistematizatua.
    - ✓ Udalerrian baliatzen diren edo funtzionatzen ari diren baliabideak eta zerbitzuak ezagutzea.
- <u>Arlo komunitarioa</u>
  - Komunitatea, pertsonen bizitza garatzen den lurralde bezala eta bertan sortzen diren sare eta harreman bezala ulertuta, jasotzailea da, Esku-hartzearen beraren garapenean, komunitate osasuntsuagoak garatzen laguntzen baitu, eta horiek, beren neurrian, pertsonen behar eta zailtasunei erantzuten baitiete.
  - Eredu Komunitariotik eratorritako metodoek, zerbitzuaren garapenean eta bermean kokatuta, behar-beharrezko dituzte bertako profesionalek komunitateko eguneroko bizitzan parte hartzea pertsonak bizi diren Ingurunea zehaztasunez ezagutzea eta gizarte-

eta hezkuntza-eragile guztien erantzukizuna banatzea ahalbidetzen duten formatuak ezartzea, koerantzukizunean oinarrituta, pertsonen beharrak betetzeko.

- Errezilgo udalak antolatzen dituen udaleku irekietan begirale laguntzaile lanak bideratzen laguntzea nerabe eta gazte udalekuetako begiraleen lana ikasteko eta komunitatearekin gertutasuna ez galtzeko
- Herriko jai batzordean zein beste kultur jardueretan nerabeen parte hartzea sustatzeko zubi lanak egitea
- Opor garaian nerabe eta gazteekin ekintza bereziak antolatzea Gabonak, Aste Santua eta udaran

- <u>Gizarte zerbitzutik: Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua (1.3. zerbitzua)</u>

  - Familia esku hartze sozio hezitzailea

Funtsa	Esku-hartze sozio-edukatiboko eta psikosozialeko zerbitzuak pertsonen eta haien familia-nukleoen premiei erantzun behar die, esku-hartzea familiaren etxean kokatuz, familiaren funtsezko zentro gisa.
Xedea eta hartzaileak	Familiako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen azken helburua familiako kideen autonomia eta baliabideak eskuratzea da, garapen-testuinguruen egokitzapena hobetzetik abiatuta. • Babesgabetasun arin edo ertaineko egoeran dauden haurrak, haur nerabeak eta haien familiak. • Komunitateko sistemak, zerbitzuak eta eragileak eta baliabideak.
Metodologia	Gizarte- eta hezkuntza-arloko familia-arloko esku-hartzea modu osagarrian gara daiteke esku-hartzeko proiektu bakar batean: • Etxeko hezkuntza: familia-antolaketaren beraren ondoriozko beharrak; antolaketa ekonomikoa, ordutegiak, higienea, elikadura, etxebizitza. • Oinarrizko familia-esku-hartzea: familia-, eskola- eta prestakuntza-dinamikaren inguruko beharrak, lan- eta okupazio-dinamika, osasuna, komunitatearen baliabideetan eta zerbitzuetan parte hartzea.
Esparruak	Banakako, taldeko eta familiako esku-hartze esparrua.
Profesionalak	Gizarte-hezitzaileak. Gizarte-langilea, ikastetxeetako profesionalak.
Denborak	• Topaketen antolaketa egituratua (2-4 astean).

	• Esku hartzeko epeak, beharren diagnostikoan eta esku-hartze proiektuaren berrikuspenean oinarrituta.
Lorpenak prozesua amaitzean	Familia-autonomian aurrera egitea edo hobetzea, eta kide bakoitzaren garapen-testuinguruetan parte hartzea edo garatzea.

- Haur eta nerabeekin esku hartze sozio hezitzailea

Funtsa	Prebentzio-esparru normalizatutzat hartzen da, eta inguruko udalerrietako edo udalerri mankomunatuetako haur guztiek parte har dezakete. Funtsean, haurren eta nerabeen premiei erantzuteko planteatzen da, hezkuntza-osagarriren bat edo hezkuntza-konpentsazioren bat behar dutenei arreta berezia eskainiz.
Xedea eta hartzaileak	Helburua da baliabide pertsonalak eskuratzen laguntzea, haien bizi-baldintzak hobetzen eta zailtasunak gainditzen laguntzeko. • 8 eta 17 urte bitarteko haurrak eta nerabeak eta haien familiak. • Komunitateko zerbitzu-sistemak, eragileak eta baliabideak.
Metodologia	Eguneroko jarduera garatzen den testuinguruetan (kalea, azak, berdinen taldea, etab.) hezitzaileak haur eta nerabeekin duen presentzian, erabilgarritasunean eta hurbiltasunean oinarrituta dago. Esku hartzeko proiektuetan gauzatzen da, antzemandako beharrei erantzuteko.
Esparruak	Taldean, bakarka, familian eta ingurune irekian esku hartzeko esparruak.
Profesionalak	Gizarte-hezitzaileak. Gizarte-langileak, ikastetxeetako profesionalak, ikastolako behatokia, beste batzuk...
Denborak	• Topaketen antolaketa egituratua (astean bitan). • Esku hartzeko epeak, beharren diagnostikoan eta esku-hartze proiektuaren berrikuspenean oinarrituta (2 eta 4 urte bitarteko prozesuak).
Lorpenak prozesua amaitzean	Haurren eta nerabeen heldutasuna eta autonomia beren bizi-prozesuaren garapenean eta baliabide normalizatuetan, zerbitzu-sistemetan eta testuinguruetan parte hartzean.

. * Pertsona eta familia etorkinei harrera

Funtsa	Modalitate hau etorkinei harrera egiteko unean uneko erantzun gisa oinarritzen da, etorkinak lurraldean, beren baliabideetan eta auzo- eta komunitate-dinamikan sartzen eta egokitzen laguntzeko tresna gisa.
Xedea eta hartzaileak	Bizikidetza erraztea eta udalerrira iritsi berriak komunitatean integratzea. • Pertsonak (adingabeak eta adin nagusikoak). • Pertsona helduak, haurrak, nerabeak eta/edo lurraldera iritsi berriak diren familiak. • Komunitateko sistemak, zerbitzuak, eragileak eta baliabideak.
Metodologia	Iritsi berriak (edo etorkinak) hartzeko esku-hartzeak izaera puntuala du, eta pertsonekin harreman bat ezartzea eskatzen du, pertsona horiek lurraldeko, udalerriko, mankomunitateko edo eremuko baliabide eta zerbitzuekin konektatu ahal izateko. Era berean, beste programa batzuek erantzun ditzaketen behar eta zailtasun posibleak behatu eta identifikatzeko aukera ematen du. Herriko Tipi Tapa programan parte hartzea
Esparruak	Banakako, taldeko eta familiako esku-hartze esparrua.
Profesionalak	Gizarte-hezitzaileak. Gizarte-langileak, ikastetxeetako eta sustapen-sistemako profesionalak eta baliabide eta zerbitzu komunitarioetako beste eragile batzuk.
Denborak	Topaketen antolaketa egituratua (2-4 elkarrizketa, beharren arabera).
Lorpenak prozesua amaitzean	Udalerriaren ezagutzan aurrera egitea eta hobetzea Mugikortasunean autonomia eskuratzea, dinamika eta baliabide eta zerbitzuetan parte hartzea.

- Besteak, beharren arabera sortu daitezkeenak

- Gazteriatik: Haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzua (Gaztematikako PSZ txostena erreferentzia)

Helburu nagusiak

Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzuak honako helburu orokorrak ditu:

- Haur, nerabe eta gazteak aisialdiaz gozatzea era aktiboan, parte hartzailean, sortzailean eta osasungarrian.
- Haurrak, nerabeak eta gazteak eskubide osoko herritar eta eskubideen subjektu direla aitortzea, beraien izaera eta nortasuna zein testuingurutan eratzen den kontuan izanik.
- Haur ,nerabe eta gazteengarapen eta eraikuntza pertsonalean laguntzea, trantsizioak erraztuz.
- Nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatzea.
- Haur, nerabe eta gazteen artean aniztasuna ezagutzen eta ezberdina dena onartzen laguntzea.
- Haur, nerabe eta gazteen artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin bultzatzea eta horretan gustura aritu daitezen laguntzea.
- Parte hartzeko cultura aktibo eta arduratsua sortu eta hedatzea, haurrak, nerabeak eta gazteak komunitateko parte diren subjektu aktiboak izan daitezen.
- Esku hartzeko espazio desberdinak sortzea, eragina dutenak eta haur, nerabe eta gazteen beharretara egokituak, osagarriak direnak eta konpentsatzen dutenak.
- Herriko 6-30 urte bitarteko haur, nerabe eta gazteen zerbitzura dauden egitura erreferentzialak izatea, hurbilekoak eta jarraituak.
- Haur, nerabe eta gazteei eta haien zailtasunei arreta emateko sareko lan sistema komunitario batean parte hartzea.
- Haur, nerabe eta gazteei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortzea eta partekatzea bestebaliabide eta sistema batzuetako profesionalekin.

- Haurren sustapenerako arreta zerbitzua

Xedea	Maila indibidualean autonomia sustatzea; kolektiboki, berdinen arteko harreman eraikitzaileak garatzea; komunitate mailan; komunitatean inplikatzea.

Hartzaileak	• 5-11 urte bitarteko haurrak. • Komunitateko sistemak, zerbitzuak, eragileak eta baliabideak.
Metodologia	Eguneroko jarduera garatzen den testuinguruetan eta espazio egonkor baten erreferentziatik abiatuta, hezitzaileak haur eta nerabeekiko duen presentzian, erabilgarritasunean eta hurbiltasunean oinarritutako harremanen osaketan oinarritzen da.
Esparruak	Taldean, bakarka, familian eta ingurune irekian esku hartzeko esparruak.
Profesionalak	Gizarte-hezitzaileak. Gizarte-langileak, ikastetxeetako profesionalak, beste batzuk...
Denborak	Topaketen antolaketa egituratua (astean bitan edo hirutan). 5-8 urte bitarteko haurrak : OSTEGUNAK 16:45-18:45 9-11 urte bitarteko haurrak : ASTEAZKENAK 16:45-18:45

- Nerabeen sustapenerako arreta zerbitzua

Xedea	Maila indibidualean autonomia sustatzea; kolektiboki, berdinen arteko harreman eraikitzaileak garatzea; komunitate mailan; komunitatean inplikatzea.
Hartzaileak	• 12-17 urte bitarteko nerabeak. • Komunitateko sistemak, zerbitzuak, eragileak eta baliabideak.
Metodologia	Eguneroko jarduera garatzen den testuinguruetan hezitzaileak nerabeekin duen presentzian, erabilgarritasunean eta hurbiltasunean oinarritutako harremanen osaketan eta espazio egonkor baten erreferentzian oinarritzen da.
Esparruak	Taldean, bakarka, familian eta ingurune irekian esku hartzeko esparruak.
Profesionalak	Gizarte-hezitzaileak. Gizarte-langileak, ikastetxeetako profesionalak, beste batzuk...
Denborak	Topaketen antolaketa egituratua (astean bitan).

	12-17 urte bitarteko nerabeak OSTIRALAK 16:45 – 18:45

5.Baliabide pertsonalak

- Profil profesionala:
  - Zerbitzua emango duen langileak honako baldintza hauek egiaztatu beharko ditu : 2. Taldeari (Esku harttze sozialaren arloa) dagokion titulazioa izatea, esku hartze sozialerako berezko zereginetan ardura duten langileak, Gipuzkoako Esku Hartze Sozialaren IV. Hitzarmen kolektiboan jasota dagoena (2023-2025) jardunaldi erdian
  - Koordinatzailea : lan hauetan eskarmentua izatea baloratuko da
- Profesionalen funtzioak
  - Zerbitzuko Zuzeneko Arretan profesionalek bete beharreko eginkizun nagusia Hezkuntza- Esparru eta -Espazioak sortzea izango da, esku hartzeko prozesuak eratzea ahalbidetzeko, harremanetako tresnetan oinarrituta, Esku-hartzearen subjektu diren pertsonen beharrak betetzearren, eta, halaber, Esparru horiek Aktibatzea eta Gidatzea.
  - Zerbitzuko Zeharkako Arretan, profesionalen eginkizuna lau lan handiren ondoriozko zereginak gauzatzera zuzenduta egongo da, hau da: zerbitzuaren Plangintza, Esku hartzeko Plan eta Proiektuak, Koordinazioa eta kudeaketa-zereginak Ekintza Komunitarioa gauzatzeko.Gaztematikako saioetan ere parte hartzea ere beharrezkoa izango da
- Ekipoak osatzea
  - Saiaz mankomunitateko 1.3. zerbitzua garatzeko profesionalekin ekipoa osatuko du, beste zerbitzuak martxan jartzen direnean, talde egonkorrak sortuz, gizarte langilearekin batera.

6.Baliabide materialak

- Zuzeneko arretarako espazioak eta materialak (Akertxoko, Gazte lokala, Gizarte zerbitzuak…)

- Zeharkako arretarako espazioa eta materialak (bulegoa, ordenadorea, telefonoa…)
- Jardueretako materialak
- Ikasturterako udalak aurrekontu bat erreserbatuko du ekintza bereziak egiten direnerako.

  Egun berezietako (Gabonak, Aste Santua, Udara) ekintzak egiteko udalak urtean gehienez 2000€ aurrekontua jasoko du

7. Zerbitzuaren antolaketa

a. <u>Zuzeneko arreta (%60)</u>

i. Gizarte zerbitzuetatik: Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua (%40)

1. Familia esku hartze sozio hezitzailea
2. Haur eta nerabeekin esku hartze sozio hezitzailea
3. Adineko pertsona eta familia etorkinei harrera (dagokionean)

ii. Gazteriatik: Haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzua (%60)

b. <u>Zeharkako arreta (%40)</u>

i. Barne koordinazioa: Gizarte zerbitzuekin koordinazioa, herriko beste elkarteekin koordinazioa

ii. Beste eragileekin koordinazioa: Eskolarekin koordinazioa, Gaztematika programarekin koordinazioa

iii. Arlo komunitarioa

iv. Barruko lana (prestaketa, plangintza, eginkizunak)Egunero jarraipen fitxa bat osatuko da egiten diren ekintzekin. Hilero gizarte langilearekin bilera presentziala edo telematikoa egingo da hilabeteko balorazio bat egiteko

v. Hiru hilero jarraipen txostena banatuko da udaletxean baita urteko memoria ere bai

vi. Udalarekin koordinazioa

vii. Hilabetean bi bilera egingo dira kasuen eta zerbitzuen jarraipena egin ahal izateko.bai gizarte langile edo ordezkari politikoekin ere bai.

DILIGENTZIA: Konstarazteko, plegu hauek 2024ko azaroaren 7an egindako Udalbatzan onartu zirela.

Errezil, 2024ko azaroaren 7an

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

Digitalki sinatuta norengandik:
MARIA ETXEBERRIA
URRETABIZKAIA - 72445133D
Data: 2024.11.07 14:21:35
+01'00'